

Eta umea jarrita egoan, geldi ta gogoz galdua... Aize izan nai eban, zure adar ulukarien artetik ibilteko ; zure geriza izan nai eban, eta egunaz ur gaiñean luzatu ; eta ibilli ara ta ona, aaten antzera, bedar ta itzal artean.

## 36

## ONESPEN

Onets egizu gorpuztxo au, zeru-mosua lurrari irabazi dautson gogo zuri au ; eguzki-argia maite izanik, bere amaren arpegiko zorapenez lillurazten dana ; autsa ezetsi ta urrea nai izatea oindinõ ikasi ez dauana. Ar egizu biotz ondora, ta onetsi !

Eun bide-kurutze ditun mundu onetara etorri zan, eta ez dakit zelan aukeratu zinduzan zu aibat lagunen artean, zergaitik dei egin eban zure atean, zuri eskutik oraturik bideaz itauntzeko. Irri-barreka ondoren doakizu, ta bere biotzean itz dagiala ezeren ezpai bage. Jagon aren fedea zeuregan, artez zuzendu ta onets egizu.

Jarri zure eskua aren buru gain, eta eskatu, aren oiñetan olatuak asarrekor orru eginda be, zeru-aize biguna datorrela aren oialak puztutera, ta sakatu dagioela bakezko porturantz. Ez egizu aztu zeure arin eta estu-aldietan, itxi egiozu biotze-raiño urreratzen eta onetsi egizu.